

Zer egin dezakegu euskara gehiago erabiltzeko?

Asko egin daiteke euskararen alde. Hona hemen adibide erraz batzuk. Ziur zuek ere horrelako ekintzak egin ditzakezuela!

IRUDIA ETA ERROTULAZIOA

- Kartelak euskaraz sortzea
- Menuak euskaraz idaztea
- webgunea euskaraz sortzea
- Zigilua euskaratzea
- Hizkuntza-paisaia euskalduntzea
- Barruko agiri eta oharra euskaratzea
- Ordainagiriak euskaratzea
- Errotulazioa ele bietan jartzea
- Sare-sozialak euskaraz kudeatzea: Facebook, Twiter, Tuenti...
- Fakturak, fax-orriak, orri-buruak eta inprimakiak euskaraz jartzea
- Arroparen etiketak euskaratzea
- Kafe-makina eta bestelako makinaren mezuak euskaratzea
- Buletinak eta argitalpenak euskaraz egitea
- Publizitaterako euskarriak (kamisetak, egutegiak... euskaraz sortzea)
- Bisita-txartelak euskaraz egitea
- Esku-orriak euskaraz sortzea
- Prentsa eta irratiko iragarkiak euskaraz izatea
- Euskaraz olatuaren pegatina erabiltzea, jendeak jakiteko, gurean ere euskaraz egiten dugula
- Zabalik/itxita txartela erabiltzea
- Merkealdiko kartelak euskaraz izatea
- Saltokiaren ordutegia euskaraz ipintzea...
- Irratia euskaraz jartzea
- Itxarongelan euskarazko aldizkariak jartzea



KANPO-HARREMANAK

- Telefonoz, lehendabiziko hitza euskaraz izatea
- Komunikazio idatziak euskaraz egitea
- Telefonoko erantzugailua euskaraz ipintzea
- Megafoniatik informazio guztia euskaraz ematea
- Ekitaldietako sarrerak eta agurrak euskaraz egitea
- Banketxeko libreta eta txartela euskaraz jartzea
- Elkartean euskararen erabilera bultzatzea
- Euskararen garrantzia zabaltzea
- Negoziazio kolektiboan Euskara Planak egiteko eskatzea
- Guraso erdaldunekin euskaraz egiten saiatzea
- Beste lekuetako talde eta elkarteekin euskaraz aritzea
- Kirol-federazioekin euskarazko harremana izaten saiatzea
- Kirol-ekitaldietan Kalinpan erabiltzea: animo oihuak, euskarazko esaldiak... banatzeko
- Euskal kultura eta gure herriko ohiturak zabaltzea
- Kirol arloan, euskara gehiago erabiltzeko antolatuko diren ekintzetan parte hartzea
- Udalarekin euskarazko hartu-emanak izatea
- Hornitzaileei euskarazko zerbitzua emateko eskatzea
- Euskaraz ondo moldatzen ez direnekin ere euskaraz egitea eta haiek euskaraz egitera animatzea
- Euskararen inguruko zalantzak izanez gero Geurien be bai ko teknikariengana edo Udaleko Euskara zerbitzura jotzea



BARNE-HARREMANAK

- Elkartearen batzarrak euskaraz egitea
- Kideekin euskaraz hitz egitea
- Estatutuak euskaratzea
- Monitore euskaldunak kontratatzea
- Euskarazko akta-liburua erostea
- Dokumentazioa ele bietan jartzea
- Barne-zirkularrak euskaraz bidaltzea
- Posible den guztia euskaraz egitea
- Langileei/kideei trebakuntza ikastaroak ematea
- TELP tailerretan parte hartzea
- Euskararen “garrantzia” bazkideen artean zabaltzea
- Euskarazko aplikazio informatikoak erabiltzea (sistema eragilea, office paketea...)
- Batzarretako akta eta dokumentu idatziak euskaraz egitea
- Interneten eskuragarri dauden euskarazko baliabideak erabiltzea
- Euskaraz ondo moldatzen ez diren kideei laguntzea
- Euskarazko txantiloak erabiltzea
- Edarien zerrendak euskaratzea
- Eskuz sortutako oharrak eta kartelak euskaraz egitea
- Testu ofizialak euskaraz sortzea
- Entrenamenduak euskaraz egitea
- Nominak euskaraz sortzea
- Kontratuak euskaraz egitea

